ATZERRIAN EGON ONDOREKO SUKARRA ETA MALARIA

Inès Niyubahwe (Nafarroako Ospitaleguneko pediatria saila)
Idoia de Miguel Palacio (Nafarroako Ospitalegunea, Huarteko Osasun Etxea)

SARRERA

▪ Gaur egun, immigratzen duen jende kopurua handia da, hala nola munduko puntu ezberdinetara bidaiatzen dutenena. Horregatik, sukarra duen gaixo baten aurrean aurkitzean, non egon den galdetzeak gero eta garrantzi handiagoa dauka.

▪ Horretan oinarrituta, diagnostiko diferentziala zabala izan beharko da, malaria ezin ahaztuz.

▪Malaria gaixotasun infekzioso bat da. Plasmodium generoko protozooa, Anopheles moskito baten bidez kutsatzen da. 5 espezie daude garrantzitsuena eta hilkorrena P. Falciparum izanik.

▪Urtero 300 - 500 milioi malaria kasu berri inguru erregistratzen dira eta milioi 1 hil baino gehiago. Munduko populazioaren %40ak gaixotasun honekin kutsatzeko arriskua du. 5 urte baino gutxiagokoetan lehenengo heriotza kausetariko bat da.



HELBURUAK

•Atzerrian egon eta geroko sukarraren diagnostiko diferentziala ezagutzea, anamnesi garrantzitsu eta egoki batekin zuzendua.

•Holako kasuetan nola jardun ikastea.

•Malariari azaldu eta honetan oinarrituta, pediatriako kasu klinikoa aurkeztu.

METODOAK

•Nafarroako Ospitaleguneko pediatria saileko larrialdietako kasu klinikoa.

•*Pubmed* atzerriko sukar eta malaria

•Nafarroako Ospitaleguneko sukarraren protokolo jarduera.

• CDC Centers for disease control and prevention

EMAITZAK

•Malariaren KLINIKA ezespezifikoa da. Ondorengo kasu klinikoa 16 hilabetetako haur batena da 40ºCtako sukarra, tetraparesia espastikoa eta hiporexia aurkezten dituena, berriki maiariadun zonaide endemiko batetik etorritakoa.

•DIAGNOSTIKO DIFERENTZIALA	FROGAK	TRATAMENDUA
Denge	Hemograma,biokimika,gasometria	Atavacuona-proguanil (klorokina erresistentzi eremua)
Sukar horia	P. Falciparum antigenemia +	Serumterapia
Sukar hemorragikoa	%7ko parasitazio indizea	Monitorizazioa
Gripea	PCR +	Ospitalizazioa eta analisia 24ordu beranduago
Ebola		
Besteak		

ONDORIOAK

•Sukarra duten gaixoei bidai eta jaioterriezko informazioa eskatzeak diagnostikoan eragin dezake.

•Gaixotasun endemikoak dituzten zonaldeetara bidaiatzerakoan profilaxi eta neurri fisikoak azpimarratu.

•Malariadun zonalde batetik etorritako edozein pertsonak sukarra eta hiporexia badu, malaria ezeztatu beharko da lehenik.

•Orokorrean diagnostikorako Plasmodium antigenemia dago eta tratamendua Atavacuona-proguanil(Malarone®) da. Zaharrena Klorokina da baina eremua eta erresistentzia antibiotikoen arabera eta atavacuona proguanil, kinina + doxiciclina edo kinina + clindamicina erabili daitezke.

•Gaixoaren jaioterriak, ohiko bizitokiak eta berriki bidaiatutako lurraldeek inmunologikoki garrantzia dute :

Jaioterria: Malariadun lurraldea
Bizitokia: Malariadun lurraldea
Berriki: Malariadun lurraldean

Jaioterria: Malariadun lurraldea
Bizitokia: Nafarroa
Berriki: Malariadun lurraldean

Jaioterria: Nafarroa
Bizitokia: Nafarroa
Berriki: Malariadun lurraldean

COMPLEJO HOSPITALARIO DE NAVARRA

OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEA